

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

314/2018 Foru Agindua, azaroaren 8koa, Agurain udalerriaren Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketa puntualaren espedientea baldintzekin behin betiko onestekoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2017ko azaroaren 21ean egindak ezohiko osoko bilkuran, Aguraingo Udalak erabaki zuen hasierako onespena ematea Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketari, zeina 31 HIE-Aguraingo Industrialdeari buruzkoa den eta, zehazki, zenbait partzelaren kalifikazioa eta Done Jakue bidearen ibilbidea aldatzea proposatzen duen. Horrez gainera, erabaki zuen espedientea hilabetean jendaurrean jartzea, eta horretarako iragarkiak argitaratu zituen ALHAOn, 2017ko abenduaren 4an (139. zk.), eta El Correo egunkarian, 2017ko abenduaren 5ean.

Bigarrena. Jendaurrean jarrita edukitzeko epean, ez zen aurkeztu alegaziorik, eta Udalak, 2018ko martxoaren 27an, espedienteari behin-behineko onespena eman zion zenbait alderdi betetzeko baldintzarekin.

Hirugarrena. 2018ko ekainaren 1ean, aldaketaren sustatzaileak idazkia sartu zuen Aguraingo Udaleko Erregistroan, eta adierazi zuen dokumentazioa eransten zuela aipatu den behin-behineko onespenean ezarritako baldintzak betetzeko, eta udal arkitekto aholkulariak aldeko txostena eman zuen dokumentazio horri buruz eta, ondorioz, baldintzak bete izanari buruz.

Laugarrena. Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren espedientea izapidetu zen eta martxoaren 7an 94/2018 Foru Araua eman zen, zeinetan Aguraingo (Araba) Hiri Antolamendurako Plan Orokorren 2. aldaketa puntualari buruzko Ingurumen Txosten Estrategikoa eman zen. Foru agindu horretan zenbait ingurumen baldintza ezartzen ziren, hirigintza agirian sartze aldera.

Esan beharra dago, Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuak espediente horri buruzko txostena eman zuela, 2018ko irailaren 30ean, eta bertan adierazi zuela aipatutako Ingurumen Txosten Estrategikoan nabarmentzen ziren alderdiak egoki eraman zirela behin-behinean onetsitako hirigintza dokumentura.

Bosgarrena. Done Jakue bidearen ibilbidea aldatzeari dagokionez, 2017ko abenduaren 15ean, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak idazkia igorri zion Araba Garapen Agentziari, eta bertan adierazi zuenez, "proposatutako ibilbideak (...) ez lioke kalterik ekarriko ez erromesei, ez Done Jakue bideari, baldin eta kalea ondo egokituko balitz, oraingoa dagoen bezala".

Seigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Arabako Plangintza Sekzioaren uztailaren 18ko 3/2018 saioan erabaki zuen erreferentziatzko espedienteari eragozpenik ez jartzea, eta URA-Uraren Euskal Agentziaren txostena atxiki zuen.

Zazpigarrena. Aguraingo Udalak espedientea bidali zuen Aldundiak behin betiko onar zezan. Espedientea 2018ko abuztuaren 1ean sartu zen erregistroan, eta, ondoren, 2018ko abuztuaren 7an, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena erantsi zen:

– Jabari publiko hidraulikoaren eta korronteen araudiari dagokionez, txostena aldekoa zen, baina baldintzatzat jarri zuen drainatze sistema jasangarriak jartzea, JPHAko 126 hiru artikuluko 7. puntuan xedatutakoarekin bat etorritz.

– Halaber, adierazi zuen ez zela beharrezkoa ur behar berriei buruzko txostena egitea.

Zortzigarrena. Era berean, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen aldeko txostena eman zuen apirilaren 24ko 2/2018 bilkuran, Diputatuen Kontseiluak 1999ko abenduaren 14an onartutako 155/99 Foru Dekretuan agindutakoa betetzeko.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Araba Garapen Agentzia SAK sustatu duen eta Udalak izapidetu duen espediente honen xedea da, funtzionamendu beharrak direla-eta, Aguraingo 1-1609 partzelan dagoen enpresa baten instalazioak handitu ahal izatea mendebaldean dagoen Aguraingo 1-1610 partzelarantz, eta horretarako, dokumentu teknikoak honako hau zehazten du:

– Alde batetik, 1-1610 partzelaren kalifikazioa aldatzea: komunitate ekimpendutik industria arruntera. Gainera, partzela horrek Done Jakue bidearen egungo ibibidea hartuko du, mendebaldeko mugan baitago, eta, beraz, partzela horretan bertan beste ibilbide bat egingo da, egungo mendebaldeko eta hegoaldeko mugetan, partzelaren barrualderantz.

– Done Jakue bidearen ibilbidea aldatzearen ondorioz, azalera handiagoa hartuko du, eta, ondorioz, 1-1610 partzelaren azalera murriztuko da.

– Aipatutako partzelaren kalifikazioa aldatzearen ondorioz, komunitate ekipamendu defizita Aguraingo 1-1615 partzelaren zati batean gauzatuko da. Partzela horrek, egungo planeamenduan, industria arrunt kalifikazioa du, eta bi zatitan zatituko da: zatietako batek, mendebaldekoak, aipatutako defizita hartuko du, eta ekialdekoak, aldiz, industria erabilera izaten jarraituko du.

Aldaketa honetan adierazi den moduan, komunitate ekipamenduarean azalerak berbera izaten jarraituko du, eta gainerako hirigintza parametroetan ez da inolako aldaketarik izango.

Bigarrena. Aldaketa hau egiteko arrazoia da 1-1609 partzelan dagoen enpresak bere instalazioak handitzeko beharra duela eta ezin duela duen partzelan egin, esleituta duen eraikigarritasuna agortu baitu. Aurretiaz aipatu den bezala, beharrezkoa da horren mendebaldean dagoen partzela okupatzea, baina bien artean Done Jakue bidea pasatzen da.

Hirugarrena. Behin dokumentua aztertuta eta kontuan hartuta Agurain udalerriko hirigintza planeamendua, eta hirigintzako eta arloko legeria aplikagarria, zuzendu beharreko zenbait alderdi aurkitu dira, ondorengo atal hauetan zehazten direnak:

1. Kontuan hartuta komunitate ekipamendu eremuen hirigintza eta eraikigarritasun parametroak hirigintzako arau berezian ezartzen direla, Aguraingo HAPOko G-10 (1.5 artikulua) eta g.10 (1.9 artikulua) ataletan xedatutakoaren arabera, eraikinaren eta bide publikoaren arteko tartea 12 metrokoa izan behar du, gutxienez; beraz, partzela pribatu ez-eraikigarriaren eremua 1-1609an 12 metro handituko da Done Jakue bidearekin bat egitean. 2. 1-1615 partzelari komunitate ekipamendurako kentzen zaion eremuak berezko partzela eratu behar du, lurzoru kalifikazioek partzela osoei eragiten baitiete.

3. Proposatutako kalifikazio-plano xehatua hiri barruko bide nagusien (e30) azalerak doitu dira eta baita industria arrunteko partzelenak (b10) ere, horien batura bat etor dadin indarrean dagoen kalifikazio-plano xehatukoarekin, eta, ondorioz, egungo planeamenduan industria arrunt kalifikazio orokorra duen eremukoarekin (B10).

4. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko txostena erantsiko da, aurreikusitako jarduna benetan gauzatzearen bideragarritasuna ziurtatzeko.

5. Aldaketaren dokumentu teknikoan Iraunkortasun Ekonomikoaren Memoria integratuko da, hori eskatzen baitute, batetik, Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testu batagina onartu zuen urriaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 22.4 artikulua eta, bestetik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuko 31.1.f. artikulua.

6. Proposamenean drainatze sistema jasagarriak jartzea jaso beharko da, JPHAko 126 hiru artikuluko 7. puntuan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 2018ko abuztuaren 7ko txostenean adierazitakoa betetzeko.

7. Proposamen bakoitzari indarrean dauden planoak erantsiko zaizkio eta bietan adieraziko da aldaketa honen eremua. 8. Aurreko ataletan aipatzen diren zuzenketak euskarri informatikoan aurkeztu behar dira, eta dokumentu teknikoa berriz ere aurkeztu beharko da, fitxategi editagarrietan eta editaezinetan.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onestea Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientea, ebazpen honetako hirugarren oinarrian adierazitako baldintzekin.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan, berriro jendaurrean jarri gabe, espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 8a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO